

## **BILBOKO UDALAK LAU IBILGAILU BERRI ESTREINATUKO DITU AURTEN SUHILTZAILEEN ZERBITZURAKO ETA BESTE BAT LARRIALDIETAKO ZERBITZURAKO**

- **Autoponpa bat, laguntza logistikoko ibilgailu bi eta aginte eta koordinazioko ibilgailu bat dira Bilboko Udalaren suhiltzaileen zerbitzuko flotako ibilgailu berriak. Guztira, lurreko 31 ibilgailu eta 2 ontzi arin uretako erreskate-lanetarako dauzka zerbitzuan.**
- **Hiriko autoponpa astun berriak B-19 dauka izena eta 3.500 ur-litroko zisterna dauka. Gainera, jendea askatzeko, erreskatatzeko eta salbamendurako ekipoa, suteen aurkako ekipamendua, aparra egiteko ekipoa eta 4.5000 kilo arrastatzeko gaitasuna daukan dibidieta elektrikoa.**
- **Suhiltzaileen beste ibilgailuetatik, bat kudeaketa operatibo eta aginteko ekipamendurako da eta beste biak laguntza logistikorako, langileak eta materiala eramateko parke batetik bestera eta esku-hartzeetan, laguntza logistikoko eta intendentziako operazioetan, eta prestakuntza eta prebentzioko jardueretan.**
- **Horrez gain, Babes Zibil eta Larrialdietako Sailak erizaindegia daukan bizi-euskarri aurreratuko anbulantzia bat eta ibilgailu hibrido txiki bat erosi ditu, Babes Zibileko teknikariei zerbitzua emateko.**

*(Bilbon, 2018ko urriaren 2an).* Bilboko Udalak suhiltzaileen flota berritu du lau ibilgailu berrirekin: Autoponpa bat, laguntza logistikoko ibilgailu bi eta aginte eta koordinazioko ibilgailu bat. Gainera, anbulantzia berria erosi da aurtan. Ibilgailu horiek zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen lagunduko dute.

**Tomás del Hierro** Herritarren Segurtasun Saileko zinegotziak eta **Andoni Oleagordia** Babes Zibil eta Larrialdietako zuzendariak gaur goizean aurkeztu dituzte ibilgailu berriak Miribillako Suhiltzaileen parkean. Guztira, lurreko 31 ibilgailu izango dira Bilboko Udalaren suhiltzaileen zerbitzuan.

Autoeskalak, ponpa astun edo arinak (suteak amatatzeko eta salbamenduko lanetarako), furgoiak eta aginteko beste ibilgailu batzuk, erreskate kimikorako ibilgailuak eta langileak eramateko ibilgailuak dira Bilboko Suhiltzaileen zerbitzuko flota.

Horiez gainera, uretako erreskateak egiteko ontzi arin bi eta ibilgailu historiko bi daude. Azken horiek instalazioak bisitatzeko egunetan eta suhiltzaileen zaindariaren eguneko karrusel tradizionalan erabiltzen dira oraindik.

Orain urte bi egin ziren azken erosketak: 30 metroko autoeskala, salbamendurako furgoi bat, era guztietako erreskate eta salbamenduak egiteko, eta aginteko ibilgailu bat sartu ziren Babes Zibil eta Larrialdietako Sailaren flotan.

210 pertsona daude Bilboko Suhiltzaileen taldean eta gaur egun parke bi daude: nagusia Miribillan eta bestea Deustun, itsasadarraren ondoan.

## **HIRIKO AUTOPONPA ASTUNA**

Ibilgailu autoponpa bat da, B-19 izenekoa. 410 CVko motorra, 4x4 trakzioa eta abiadura-kaxa automatikoa dauzka. Ur-zisterna AISI 316 L kalitateko altzairu herdoilgaitzez eginda dago eta 3.500 litroko edukiera dauka. Presio baxuko 4 irteera (horietako bat aparra egitekoarekin) eta presio altuko bi irteera dauzka.

**Autoponpa hori suteak amatatzeko eta salbamendurako erabiliko da.** Sabaian ur-monitore bat dauka, argiketa perimetraleko sistema (led), argiketarako masta, ekipo elektrogenoa, jendea ateratzeko, erreskatatzeko eta salbamendurako ekipoa, suteen aurkako ekipamendua, aparra egiteko ekipoak, eta 4.500 kilo arrastatzeko gaitasuna daukan dibidieta elektrikoa dauzka.

Horrez gain, sabaian lan egiteko segurtasun sistemak, tresnak hartzeko eta armairuetara heltzeko modu ergonomikoa eta seinaleak dauzka. Era berean, segurtasuneko eta ibilgailuaren kanpoko aldea hozteko ekipoa dauka, sute batean harrapatuta geratuz gero.

## **AGINTEKO ETA KOORDINAZIOKO IBILGAILUA**

Ibilgailu berriaren izena J-14 da eta Bilboko Suhiltzaileen Zerbitzuko agintearen eta buruaren unitaterako da. Pick-up estiloko ibilgailua da, Ford Ranger txasis baten gainean, eta 4x4 trakzioa dauka. Karrozeria osoa aluminiozko profilekin eta erretilu ateragarriekin.

Ibilgailuak espazio bi dauzka: Aurrekoa, gidatzeko eta aginteko langileak eramateko, eta atzekoa, kudeaketa operatiborako eta aginterako, agintearek laguntza teknikoa emateko.

Horretarako, **kudeaketa operatiboko eta aginteko ekipamendua dago:** kudeaketarako arbelak, prebentzio operatiboko fitxen eta substantzia arriskutsuen fitxen artxiboak, arnasketako ekipoak kontrolatzeko taula eta kamera termikoa.

Laguntzarako ekipo hauek daude ibilgailuan: ekipo elektrogenoa, argiketarako ekipoa, arnasketa autonomorako ekipoak eta suteak itzaltzeko ekipo arina.

Horrek guztiak gaitasun eta moldakortasun handia ematen dio, suhiltzaileen kudeaketa operatibo eta aginteko unitatea izateko.

## **LAGUNTZA LOGISTIKOKO IBILGAILU BI**

**Laguntza logistikorako ibilgailu bi dira, langileak eta materiala eramateko parke batetik bestera eta esku-hartzeetan, laguntza logistikoko eta intendentziako operazioetan, eta prestakuntza eta prebentzioko jardueretan.**

Lehena, L-1 izeneko, lehen seihilekoan erosi zen. Bost plaza dauka eta Ford Tourneo bat da.

Bigarrena, L-3 izeneko, 9 plazako furgonia da, Ford Transit modelokoa.

Ibilgailu horiek aginteko ibilgailu baten eta langileak eta materiala eramateko furgoi baten ordezkari erabiliko dira. Azken horiek zaharregiak dira eta erretiratu egingo dira.

## **ERIZAINDEGIA DAUKAN BIZI-EUSKARRI AURRERATUKO ANBULANTZIA BERRIA HIBRIDO BAT**

Goian aipatutako lau ibilgailu berriez gain, Bilboko Udalaren Babes Zibil eta Larrialdietako Sailak ibilgailu hibrido txiki bat erosi du, Toyota Auris modelokoa, Babes Zibileko teknikariei zerbitzua emateko. Anbulantzia berri bat ere erosi da.

Bilboko Udalak anbulantzia bi dauzka. Batek 24 orduko zerbitzua ematen du, Udaltzaingoiari eta Suhiltzaileei larrialdietan lagunduz; bestea erreserban dago.

Urtearen erdian ekarri zuten anbulantzia berria, Mercedes Sprinter modelokoa, erizaindegiarekin eta bizi-euskarri aurreratuarekin, C klasekoa. Hamar urte dauzkan anbulantzia baten ordezkari erabiliko da. Anbulantzia honek era guztietako osasun materiala dauka eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ziurtatu du.

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ESTRENA ESTE AÑO CUATRO NUEVOS VEHÍCULOS PARA DAR ASISTENCIA A BOMBEROS Y UN VEHÍCULO PARA EL SERVICIO EMERGENCIAS

- Una autobomba, dos vehículos de Apoyo Logístico y un vehículo de Mando y Coordinación han entrado a formar parte de la flota de vehículos del servicio de Bomberos del Ayuntamiento de Bilbao, que dispone de un total de 31 vehículos terrestres en servicio, además de 2 embarcaciones ligeras para rescates acuáticos.

- La nueva Autobomba Urbana Pesada, denominada B-19, tiene una cisterna con capacidad para 3.500 litros de agua. Además, cuenta con un equipo de excarcelación, rescate y salvamento, equipamiento de lucha contra incendios, equipos de espuma y cabrestante eléctrico con capacidad de arrastre de 4.500 kg.

- Los otros vehículos de Bomberos son: uno para equipamiento de gestión operativa y mando; dos vehículos de apoyo logístico, destinados a transporte de personal y material, entre parques y ante intervenciones, en operaciones de apoyo logístico e intendencia ante actividades de formación y prevención.

- Además, el Área de Protección Civil y Emergencias también ha adquirido este año una nueva ambulancia de Soporte Vital Avanzado con enfermería y un pequeño vehículo híbrido que dará servicio a los técnicos de Protección Civil.

(Bilbao, a 2 de octubre de 2018). El Ayuntamiento de Bilbao **renueva la flota de vehículos de Bomberos con cuatro recientes adquisiciones**: Una autobomba, dos vehículos de Apoyo Logístico y un vehículo de Mando y Coordinación. Además, este año **también se ha cambiado una de las ambulancias**. Estos vehículos han entrado a formar parte del servicio para mejorar la calidad y eficacia del mismo.

El Concejal de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Bilbao, **Tomás del Hierro** y el Director de Protección Civil y Emergencias, **Andoni Oleagordia**, han presentado esta mañana en el Parque de Bomberos de Miribilla los nuevos vehículos, que se simarán a los ya existentes, **31 vehículos terrestres**, destinados al cuerpo de bomberos del Ayuntamiento de Bilbao.

Autoescalas, bombas pesadas o ligeras (que sirven tanto para la extinción del fuego como para trabajos de salvamento) furgones y otros vehículos de mando, vehículos de rescate químico o coches para el transporte de personal conforman la flota del servicio de Bomberos de Bilbao.

A todos estos, hay que sumar además **2 embarcaciones ligeras** utilizadas para rescates acuáticos y dos vehículos históricos que todavía hoy se usan durante la jornada de puertas abiertas y en el tradicional carrusel de vehículos con motivo del día del patrono de los bomberos.

Las últimas adquisiciones que se realizaron fueron, hace un par de años, una autoescala de 30 metros de altura, un furgón de salvamento, destinado a la atención y resolución de todo tipo de rescates y salvamentos, y un vehículo de mando, que se sumaron al parque móvil del área de Protección Civil y Emergencias.

El cuerpo de Bomberos de Bilbao está formado por 210 personas y actualmente hay dos Parques, el central en Miribilla y el de Deusto, al lado de la Ría.

## **AUTOBOMBA URBANA PESADA**

Se trata de un vehículo autobomba, denominación B-19, con motor de 410 cv, tracción 4x4, y caja de cambios automática. Dispone de una cisterna de agua construida en acero inoxidable de calidad AISI 316 L, con capacidad para 3.500 litros de agua, con 4 salidas en baja presión (una de ellas con proporcionador de espumogeno) y 2 en alta presión.

Esta autobomba se utilizará como **equipamiento de extinción de incendios y salvamento**. Lleva integrada un monitor de agua en techo, sistema de iluminación perimetral en led, mástil de iluminación, grupo electrógeno, equipo de excarcelación, rescate y salvamento, equipamiento de lucha contra incendios, equipos de espuma, cabrestante eléctrico con capacidad de arrastre de 4.500 kg.

Además tiene sistemas de seguridad de trabajo en techo, acceso ergonómico a herramientas y armarios y señalización. Al mismo tiempo posee equipo de seguridad y refrigeración exterior de vehículo en caso de atrapamiento por fuego.

## **VEHÍCULO DE MANDO Y COORDINACIÓN**

El nuevo vehículo, denominación J-14, está destinado a Unidad de mando y Jefatura del Servicio de Bomberos de Bilbao, es un vehículo tipo pick-up sobre chasis Ford Ranger, con tracción 4x4. Carrozado integral en perfiles de aluminio y con bandejas extraíbles.

El vehículo consta de 2 espacios: un espacio delantero de conducción y transporte del personal de mando y otro espacio trasero de gestión operativa y mando, de soporte técnico al mando.

Por ello en su interior cuenta con equipamiento de **gestión operativa y mando**: pizarras de gestión, archivos de fichas de prevención operativa y fichas de materias peligrosas, tabla de control de equipos de respiración, además de cámara térmica.

En cuanto al equipamiento de soporte el vehículo cuenta con: un grupo electrógeno, equipo de iluminación, equipos de Respiración Autónoma y equipo ligero de extinción.

Todo ello confiere una gran capacidad y versatilidad como unidad de gestión operativa y mando de Bomberos.

## **DOS VEHÍCULOS DE APOYO LOGÍSTICO**

Se trata de dos vehículos de apoyo logístico, destinados a **transporte de personal y material** entre parques, ante **intervenciones y en operaciones de apoyo logístico e intendencia** ante actividades de formación y prevención.

El primero, denominado L-1, fue adquirido en el primer semestre. Se trata de un vehículo de 5 plazas, modelo Ford Tourneo.

El segundo, denominado L-3, se trata de un furgón de 9 plazas, modelo Ford Transit.

Estos vehículos sustituirán a un vehículo de mando y a un furgón de transporte de personal y material que se dan de baja por su antigüedad

## **NUEVA AMBULANCIA CON SOPORTE VITAL AVANZADO CON ENFERMERÍA Y UN COCHE HÍBRIDO**

Además de estos cuatro nuevos vehículos, el Área de Protección Civil y Emergencias del Ayuntamiento de Bilbao ha adquirido también un pequeño coche híbrido, un Toyota Auris, que dará servicio a los técnicos de Protección Civil y una nueva ambulancia.

El Ayuntamiento de Bilbao dispone de dos ambulancias, de las cuales una de ellas da servicio las 24 horas, acompañando a Policía Municipal y Bomberos en servicios de emergencia y la otra está de reserva.

A mediados de este año llegó la nueva ambulancia, Mercedes Sprinter, con soporte vital avanzado con enfermería, Clase C, sustituyendo a otra ambulancia la cual tenía ya 10 años. Esta ambulancia dispone de todo tipo de material sanitario, certificado por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco.